

MINETIK OROIMENERA

Duela 81 urte faxisten hegazkinek Otxandio bonbardatu zuten

Mila bedera-
tzirehun
eta hogei-
ta hama-
seigarre-
na,/ ze
egun baltza garagarrilak hoge-
tabi eukazana». Horrela hasten
dira Otxandioko bonbardaketa-
ren 75. urteurrenerako Unai
Iturriagak idatzi eta Mikel Ur-
dangarinek musikatutako bert-
soak. Sentsibiltate bereziko
abestia, ezin bestela izan,
Otxandioren ostean faxismoa-
ren bonbek eta suak suntsitu-
tako beste bi herritako seme
horiena, durangarrarena eta
zornotzarrarena, hain zuzen.

Abestiak labur-labur konta-
tzen duen laztura haren leku-
kotasun gisa, Nestor Basterre-
txearen eskultura erraldoi bat
dago ikusgai Otxandioko Andi-
kona plazan, 75. urteurren har-
tan inauguratua: “Heriotza ze-
rutik etorri jakun”.

Iaz, bonbardaketaren 80. ur-
teurrenean, oroimen eta ome-
naldi ekitaldi bereziak egin zi-
tuzten. Herriko jaien ardatza
bonbardaketaren eta oro har
gerrako gertaeren eta memoria

 **MEMORIA HISTORIKOA** / Xabier Izaga Gonzalez

Laurogeita bat urte joan dira jada faxistek Otxandio bonbardatu zutenetik. Biktima gehien-gehienak zibilak, emakumeak eta umeak izan ziren. Hilaren 23an urteroko omenaldia egingo dute. «Asko egin da, baina oraindik asko dago egiteko memoria berreskuratzeko bidean».

historikoaren berreskurapena izan zen. Aurton, berriz, bonbardaketaren egunean barik, 23an izango dira 81. urteurreneko ekitaldiak. Eguerdian, Andikona Foroaren laguntzaz Udalak zuzenduta 1978tik urtero egin izan duten ekitaldia izango da, herriko hainbat elkarte, talde eta bizirik dauden lekukoak bertan direla, joan den urtetik hil direnak gogoan. 1936ko uztailaren 22ko goiz beltz hartan



Otxandioko familia bat idi parearekin baserri parean, bonbardaketa baino hilabete batzuk lehenago.
Indalezio OJANGUREN | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ARTXIBOA

ANDIKONAKO SARRASKIA, «AHAZTEN ITZI EZIN DANA»

Xabier Izaga Gonzalez

1936ko uztailaren 18a, Santa Marina eguna; Otxandion, Santa Maña, herriko

zaindariaren jaiak. Estatuko hainbat hiriburutan altxamendu faxista egon zen eta hiri horietako askotan faxistak nagusitu ziren; esate baterako, Otxandiotik gertu,

Hilaren 23an izango dira 81. urteurreneko ekitaldiak. Eguerdian, Andikona plazako omenaldia; gauean, Huheziko ikasle batzuek egindako bideo bat proiektatuko dute

Dagoeneko gauza asko argitara atera badira ere, oraindik ikertu eta argitu gabeko beste asko daudela dio Armendarizek. Kasu askotan, gainera, berandu heldu diren sentsazioa dute

eurek tabu gisa eduki dutelako, sufrimendu pertsonal eta kolektibo handiko gaia izanda. Hala ere, egindakoa ere nabarmendu du. «Zorionez, Otxandion dagoen sentsazioa da ba-

Otxandion zirenetatik 30 lagun inguru daude bizirik. Memoria historikoaren inguruan egindakoaren irakurketa egingo dute orduko biktimen eta errefuxiatuen memoria nabarmentzeko, baina baita gaur egun ere beste herrialde batzuetan halakoak badirela gogorarazi eta horiei keinua egiteko ere.

Gauean, bonbardaketaren gaineko bideo bat proiektatuko dute, Mondragon Unibertsitateko Huheziko ikasle batzuek Anboto Komunikabideak taldearen laguntzaz egina, orduko lekukoei egindako elkarrizketak eta orduko historia gaur egungo testuingurura ekarrita. Otxandioko Udalak, herriaren izenean, bideoan parte hartu duten bizilagunen belaunaldia omendu eta ikasle horien lan bikaina eskertu nahi du.

Bestetik, aurten ere ikusgai daude hirigune historikoan zehar guda zibilarekin zerikusia duten zazpi gune, hala nola babeslekuak edo Agirre lehendakariaren kuartela izan zena, gerrako egoera eta haren ondorio beldurgarriak azaltzen dituztenak. Memoriaren ibilbide hori

seinaleztatuta dago eta, informazio xeheagoa ematearren, bisita gidatuak ere egiten dituzte.

GERTATUTAKOAREN KONTZIENTZIA

Hala dio abestiak, «*gogoratzeak min emon arren/ ahazten itzi ezin dana*», eta gauza bera uste dute otxandiarrek.

Berrogei urteko diktaduran zabaldutako beldurrak eta isiltasunak hala moduzko trantsizioan ere iraun zuten neurri batean. Horretaz hitz egin gabe, ezer egin gabe hainbeste urte igaro ostean, baina, apurka-apurka horren kontzientzia zabaltzen hasi zen eta, eta gizartearen presioaren ondorioz, legeak ere, berandu eta herrenka, heldu ziren. Edonola ere, gazteek horren kontzientzia hartu izana eskertzeko eta poztekoa dela dio Otxandioko alkate Urtzi Armendarizek, zer gertatu zen galdetzea eta gaitzaile haien dramaren memoria berreskuratzea gainditu gabeko ikasgaia izan ei delako. Isiltasun kolektiboa izan dela dio Armendarizek, gazteak oso berandu arte ausartu edo gogoratu ez direlako eta nagusiek



Aurten ere ikusgai egongo dira 36ko gudaren berri ematen dituzten zazpi guneak. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

Iruñean eta Gasteizen. Aurreko hilabeteetan hainbat karlista matxinoekin bat egiteko prestatzen jardun zuten Durangon, eta pentsatzekoa da haien artean otxandiarren batzuk ere izango zirela. Donostian egoera nahasia zen, baina Bilbon berehala eragotzi zuten matxinada; horrenbestez, estatu kolpearekin bat egiteko asmoa zutenek Gasteiz aldera edo ezkutura jo zuten.

Hurrengo egunean, 19an, hegazkin batek Otxandio gaineko zerua zeharkatu zuen, altxamenduaren aldeko propaganda botatzeko. Herri hori, Arabako mugan, leku garrantzitsua zenez, hainbat militarrek eta boluntario abertzale eta ezkertiarrek osatutako zutabe bat hara abiatu zen Bilbotik 19ko

goizaldean, eta 21ean bigarren bat ere iritsi zen.

Egun berean, indar horiek Legutio hartu zuten, tirorik bota gabe hartu ere, zutabe bat Otxandiotik eta bestea Barazartik hurbilduta. Haien helburua, dirudienez, Gasteizeraino iristea zen, Gipuzkoatik abiatutako beste zutabe batekin batera; hala ere, gipuzkoarrek Donostiarako bidea hartu zuten, han ere militarrek matxinatu zirela jakindakoan. Hartara, Legution ziren indarrek Gasteizera iristeko asmoa bertan behera utzi eta Otxandiora eta Ubidera itzultzea erabaki zuten, Molaren indarrei aurre egiteko Legution gotortu beharrean.

Otxandion, bitartean, kezka gorabehera, jai giroa zegoen. Baina 19an bezala, 21ean zenbait

hegazkin txikik matxinatuen panfletoak bota zituzten, honako mezu hau helarazteko: «Ochandianeses, rendíos». Egun berean, Gasteiztik falangista eta erreketek zutabe bat abiatu zen Legutiorantz, baina Gasteizen faxistek ez zuten egoera guztiz kontrolpean, nonbait, eta Arabako hiriburuaren defentsa lehenetsita, haraxe itzuli ziren. Gau hartan, Legutioko herritar askok Otxandiora eta altxamenduaren aurka zeuden beste zenbait lekutara jo zuten.

«PAPELAK DIE! PAPELAK DIE!»

Uztailaren 22an, ordu arte ikusi gabeko hondamendia eragin zuten faxistek Otxandion. Goizeko

bederatzietarako jende asko zebilen herriko kaleetan zehar, batez ere Andikona plazan, herriko erreferentzia gunea zenez gero: aurreko egunetan iritsitako soldaduak eta milizianoak, otxandiar ugari eta jaietara joandako beste asko. Umeak iturriaren eta bertako erreken inguruan jolasean, emakumeak iturrira uretan zihoazela edo erreka bazterreko harraskan arropak garbitzen... Plaza huraxe aukeratu zuten Logroñoko Recajo-Agoncillotik irten ziren hegazkinak sabelean zeramatzaten bonben jomuga. Zigor Olabarria historialariak «Gerra Zibila Otxandion» lanean dioenez, ez dago argi hegazkin batek edo bik egin zuten triskantza, ezta

bonbardatu aurretik panfletoak bota zituzten ala ez; edonola ere, lekukoek diotenez, paperak botako zituztela uste zuten denek, eta hegazkinak hegoetan Errepublikaren bandera margotuta ei zeukaten. 09:30ak baino lehen hasi eta ordu erdiz, Andikona eta inguruak heriotzaz erein zituzten. «*Andikonako errekatxoan laster gorritu zana*», diote Unai Iturriagaren bertsoek, lekukoek kontatu dutena deskribatzeko, eta irudi hori ez da inondik inora gehiegikeria.

Honela gogoratzen zuen Koldo Pildainek iaz: «Andikona plazatik zehar pasatu ginen, hilda zeuden denak, besoak, hankak nahinon... Oso gogorra izan



«Heriotza zerutik etorri jakun» Nestor Basterretxearen obra erraldoia inauguratu zuten 2011n, bonbardaketaren 75. urteurrenean. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Otxandioko Udalak bat egin du Argentinan abiatutako frankismoaren krimenen aurkako kereilarekin. Ofizialki kereilan agertzeko konpromisoa hartua du

tez ere azken hamar urteotan hainbat elkartek eta norbanakok egin duten lanaren ondorioz, batzuk bideo kamera eskuan, beste batzuk apunteak hartuz edo argazki zaharrak berreskuratuz, apurka-apurka haritik tiraka, lekukoak ‘askatu’ egin direla eta orain inongo lotsa, beldur eta tabu barik konstatzen dutela orduan gertatu zena». Eta hori arrakasta kolektiboa dela uste dute, era naturalean hitz egitea, tragedia hura historiarako gelditzea eta, batez ere, biktimak eta erantzuleak nortzuk izan ziren jakitea bai nagusiek bai belaunaldi berriek.

Alabaina, dagoeneko gauza asko argitara atera badira ere, oraindik ikertu eta argitu gabe dauden beste asko daudela dio Armendarizek, eta, kasu askotan, zoritxarrez, berandu heldu diren sentsazioa ere badutela.

«Belaunaldi bat galtzen daukagu eta oraindino etxeko lanak egin barik dauzkagu».

JUSTIZIA ESKE JARRAITU BEHARRA

Joan den urteko ekitaldi nagusian, Angel Salas Larrazabal urduñarrari frankismoan egindako ohoreak baliogabetuko zituztela jakinarazi zuen Urduñako alkate Idoia Aginakok. Otxandion bonbak jaurti zituzten hegazkinetako baten pilotua zen Salas. «Urduñak ez zuen erantzukizunik izan bonbardaketari dagokionez, baina bai bere esker ona eman zionean. Horregatik eskatzen dizuet barkamena Urduñaren izenean», esan zuen Aginakok hunkituta. Otxandioko alkateak haren hitzak eta Urduñaren jokaera eskertu zituen orduan otxandiarren izenean, eta gogoratu zuen oraindik Estatu espainoleko inongo gobernu presidentek ez goi epailek ez dutela halako barkamen eske instituzionalik egin. Iaz esandakoak indarrean jarraitzen duela egun ere dio Armendarizek: «Justizia esaten dugu, justizia unibertsala, giza eskubi-

zen». Aurten hil da Pildain, hondamen hura gogoan, baina gertatuaren memoria berreskuratzeko ekarpen ezin baliotsuagoa eginda. Jose Antonio Marulagoitia

Otxandioko medikuak bonbardaketaren ostean “Euzkadi” egunkariari kontatutakoa ere benetan ikaragarria da: «Gorputz puskatuak, gorputz adarrak

erauzita zeuzkaten umeak, burua moztutako emakumeak...». Ez dago zalantzarik zibilak zirela hegazkinetako karga hilgarriaren jomuga, jausten utzi zuten lekua eta emaitza ikusita. 61 lagun hil ziren, gehienak emakumeak eta umeak. 45 zibilak ziren; bost, milizianoak; lau, soldaduak, eta ez dago beste bosten gaineko daturik. 24 adin txikiko; horietatik 16, hamar urte baino gutxiagokoak.

Altxamendu faxistaren laugarren eguna zen. Harrezkero, ez zegoen zalantzarik gerra piztua zela, gerra luze eta ankerra, Otxandioko bertako gerra frontea, Legutioko zein Intxortako gudak, Durangoko, Gernikako zein Bilboko

bonbardaketak, okupazioa... lekuko.

NORK JAURTI ZITUEN BONBAK?

Bat datoz historialariak eta ikertzaileak Andikona bonbardatu zuen edo zuten pilotuetako bat Angel Salas Larrazabal izan zela. Besteak beste, haren anaia Jesusen hala kontatu zuelako. Angel Salas Urduñan jaio zen. Estatu kolpearen egunean, abiazio militarreko kapitaina zela, Madrilid Iruñera ihes egin zuen. II. Mundu Gerran Sobietar Batasunean izan zen naziekin, Eskuadrila Urdina delakoaren buru. Ondoren agregatu militarra izan zen Erroman, Berlinen eta Lisboan. 1972an, dibisio jenerala zela, erretiroa hartu zuen. 1977 eta 1979 bitartean senataria izan



Bonbardaketaren zenbait lekuko. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS



Eskuinean, Urtzi Armendariz
alkatea, Aritz Otxandiano alkate
ohi eta gerrako biktimen
omenaldien sustatzailearekin.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

deen errespetua... Estatu batek horien lehen defendatzaile sutua izan beharko luke, eta kasu honetan argi eta garbi gertatzen da bistan Estatuak zelan frankismoa babestu duen, zelan erantzuleak izandakoak kondekoratu dituen, horiek egindakoak ahaztu edo zuzenean estali, eta zelan batzuetan biktimei Urduña bezalako herrien keinu txiki eta ausart horietatik heltzen zaien justizia. Zelan herriko ordezkariak kapaz diren estatu mailako agintariek egin ez dutena egiteko. Horrelako keinu txikiak, beharrezkoak izateaz gainera, aitortu eta eskertu egin behar dira».

Otxandion argi dute justizia eskatzen jarraitu beharra dagoela, beren herrian gertatu zena gizateriaren aurkako krimena izan zelako eta erantzuleak nortzuk izan ziren ofizialki argitu, epaitu eta zigortu gabe dagoelako. Hain zuzen ere, joan den urtean Otxandioko Udalak bat egin zuen Argentinan abiatutako frankismoaren krimenen aurkako kereilarekin. Hartara, frankismoaren biktima izan diren lagunen testigan-

tzak jaso, dokumentatu eta ofizialki kereilan agertzeko konpromisoa hartu zuen.

Esan bezala, aurtengo ekitaldiak, omenaldia eta memoria-ren ingurukoa, datorren asteko domekan izango dira, baina esku artean duten zeregina ez da egun batekoa, urtean zehar jarraitzen duen beharra baizik. Izan ere, memoria berreskuratzearaz gain, bai elkarteek bai Udalak badituzte beste zenbait kezka eta lan. Horietako bat, garrantzi handia ematen diotena, belaunaldi berrienganako transmisioa da. Azkenaldion horrekin zuzen lotutako ekimen bat abiatu dute, 36ko gerraren gaineko unitate didaktiko bat, hain zuzen, Otxandioko eskolan curriculumaren parte izan dadin. Hezitzaile talde bat prestatzen dabil unitate didaktiko hori, eta haien asmoa aurtengo uda amaiera eta udazkena bitarte horretan amaituta egotea da, ahal bada datorren ikasturtean erabiltzen hasteko.

AURRERA BEGIRA

Udaleko ordezkari gisa, Armendarizek mezu hau zabaldu nahi



du: alde batetik, asko egin dela eta herritarrei egin dituzten omenaldiak eta memoria berreskuratzeko ahaleginak eskertu nahi dizkiela. Hala ere, bestetik, oraindik egiteko asko falta dela. Horrexegatik ez dute bertan goxo egiteko asmorik. Otxandiok eta inguruko parajeek gerra garaian protagonismo handia izan zuten, bertan bederatzi hilabete-ko gerra frontea egon zelako, eta

oraindik sufrimendu asko dago gordeta, hildako asko areketan, hobi komunetan, lubakietan, eta borrokan ibili zirenen memoria ez ezik, galtzaile izatea sufritu zuen jende askorena ere berreskuratu beharra dago. Emakumeak, umeak, erbesterratuak... dakartza alkateak gogora.

Ildo horretan, Gogora Institutuarekin eta Aranzadirekin harremanetan daude, datozen ur-

teetan Otxandioko lurretan egon daitezkeen hobi komunak identifikatu eta oroimena berreskuratzeko. Horrez gain, beste alde batetik, Legutioko Udalarekin batera bi herrion artean dauden basoetan gertatu zen tragediaren memoria ere berreskuratzeko asmoa dute. Izan ere, Legutioko batailan eta gero erresistentzia gune oso garrantzitsua izan zen Otxandioko



Argazkiaren erdian, Jose Finat, II. Mundu Gerran Estatu espainolak Berlinen zuen enbaxadorea, ofizial alemanez eta espainolez inguratuta. Haren eskuinean, Angel Salas Larrazabal.

zen Madrilgo Gorteetan, errege espainolak izendatuta, eta 1991n ohorezko kapitain jeneral izendatu zuten.

Haren anaiak "Guerra aérea" liburuan honela kontatu zuen Andikonako bonbardaketa: «Uztailaren 22an Logroño-ko Breguet XIX hegazkinek Gasteizera gerturatu nahi zuten zutabe bilbotarren borrokarako adorea suntsitu zuten. Salas kapitaina Agoncillotik aireratu zen goizean goiz [...]. Otxandiotik igarotzean soldaduz eta milizianoz betetako zenbait kamioi idoro eta bonbardatu egin zituen; hainbat tiro jo zizkien eta hondamen handia eta erabateko nahastea eragin [...]». Bilboko prentsak argitaratutako hildakoen zerrenda aipatzen du: «Zazpi

hildako eta 23 zauritu agertzen dira. Hildakoetatik, bat soldadua eta hiru milizianoak ziren, seguru asko. Emakume batek eta bi neskatok osatzen dute zerrenda (...)».

Gero eta gehiago dira urte luzeetan isilpean gorde diren gertaeren gaineko lanak, orduko eta ondorengo bilakaera historikoa ulertzeko ezinbestekoak. Otxandiori dagokionez, gomendagarriak dira oso arestian aipatutako "Gerra Zibila Otxandion", Zigor Oleaga historialari gasteiztarraren ikerketa (Eusko Ikaskuntza eta Otxandioko Udala, 2011), eta Gerediaga elkarte-ko kide Jon Irazabalen "Otxandio Gerra Zibilean" (Gerediaga Elkartea eta Otxandioko Udala, 2003 eta 2006).